

**BESTE BALIABIDEK ESTALTZEN EZ DITUZTEN BEHARRIZANEI BIDERATUTAKO DIRU LAGUNTZETARAKO  
2019. URTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

**ESPARRUA: GIZARTE ONGIZATEA**

IN-E 180/04-19

<b>UDAL ERAKUNDEA: GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA</b>	
<b>INSTRUKTOREA:</b>	J. Ramon Alberdi (GOU Patronatuko Zuzendaria)
<b>BALORAZIO BATZORDEA:</b>	G.O.U Patronatuko Batzorde Errektorea
<b>DIRU-LAGUNTZA ARLOA:</b>	Gizartekintza
<b>KODEA:</b>	2019-04-01 00000-23102-4800900
<b>AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:</b>	4.000.-€ - 00000-23102-4800900 Kontu saila
<b>HELBURUAK ONDORIOAK APLIKAZIOAREKIN</b>	<b>ETA BERE</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen diren baliabideek estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonen laguntza puntual eta osagarria eskaintzea.</li> <li>Herriko desoreka soziala zuzentzea eta bardintasun soziala bermetzea.</li> </ul>
<b>EPEA:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskaria aurkezteko epea: Oinarriak BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2019ko urriaren 31rarte</li> <li>Jasotako eskariak azaroan eta abenduan zehar ebatziko dira.</li> </ul>
<b>BALORAZIO ZEHAZKAK:</b>	<b>ERIZPIDE</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza honek borondatezko diru laguntza izaera daukate eta helburu jakin baterako dira, beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili eta Bermeoko GOUParen aurrekontuetan helburu horretarako kreditua esleituta egotearen baitan egongo da laguntza emotea ala ez.</li> </ul>
<b>ESKATZAILEAK:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza hauek hartu ahal izango dituzte, gizarte beharrian egoeran egon edo babes sozialeko beste sistema batzuetatik laguntzarik hartzeko aukerarik ez daukaten pertsonak eta familiak.</li> <li>Eskatzaileak gitxienez Bermeon urte batez erroldatuta egon beharko da.</li> <li>Eskatzaileak ezin izango dau Udalagaz ezta bere Udala Organismoekaz inolako zorrik euki.</li> </ul>
<b>DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA -</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza honen bidez diruz lagungarriak diran kontzeptuak bi dira:</li> </ul>



**A) ETXEBIZITZA ALOKAIRUA:** Epai judzialaren bidez egiten diren etxebizitza utziarazpen kasuetarako edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurretiaz egiaztatutako egoera larrietan errenten gastuak diruz lagunduko dira.

a) Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo errentari gehiagoren artean ordaintzen denean errenta edo bizikidetzaren unitate bakarreko eskatzaileari azpierrentan emanda dagoenean, hilean 125 € hileko.

b) Azpierrenta edo errentari baten baino gehiagoren artean ordaintzen den errenta kasuetan, etxe-unitate bakoitzarentzat 62,5 € hileko.

c) Ostatu edo apopiloen egonaldien kasuetan, 62,5 € hileko unitate bakoitzeko

d) Legez eraturako hotel edo ostatueta egotean, 125 € hileko.

**B) BEHARRIZAN PERTSONALAK:** Gehienez aurkezten dan beharrizanaren %60a diruz lagunduko da eta hori ezin izango da 2.100 euro baino gehiago izan.

Beharrizan pertsonaletan eskaria kontzeptu desberdinengatik aurkeztu ahal izango da. Laguntzaren kopurua, kontzeptu desberdinetako beharrizanaren kopurua guztira kontutan hartuta kalkulatu da.

Lagunduko diran kontzeptuak ondoren zehazten diranak dira:

a) **Arrisku egoeran dauden adintxikikodun familien beharrizanak:** Adin txikikoen berariazko beharrizanak sartzea egoki ikusi da: eskolako materiala ordaintzeko aurrerakina ematea, eskolako jantokia, beka tramitatu ezin izan den kasua, astialdiko ekintzak ordaintzea; beharrizan bereziekin arrisku egoeran dauden adin txikikoentzat aurkeztutako laguntza bereziak, ekintzak edo beharrizanak.

b) **Estimulazio goiztiarra:** 6tik 14 urte bitarteko umeentzat errehabilitazio tratamenduek eragindako gastuak ordaintzeko laguntzak kudeatuko dira. Derrigorrezkoa izango da ezintasun edota mendekotasun egiaztatzea aurkeztea. Tratamendua agintzen duen medikuaren txostena eta aurrekontu 2 ere aurkeztu beharko dira.

c) **Garraioa:** Garraioa erabili beharrak eragindako gastuak kudeatuko dira, honako kasu hauetan:

- mediku tratamenduak



**PROZEDURA ETA  
AURKEZTU BEHARREKO  
DOKUMENTAZIOA:**

- prestakuntza ekintzak burutzea
  - babestutako enplegu zentroetara joatea
- 
- **Prozedura:**
    - Konkurrentzi ez leihakorra
    - Eskarien hurrenkera, sarrera erregistroaren arabera izango da.
    - Laguntzaren izaera dala eta bizikidetza unidadeak alokairurako zein beharrian pertsonaletarako izan ahal dauzan beharrianak lehenetsiko dira. Hori dala eta, laguntza honeen ebazpena egiterakoan bizikidetza unidadearen diru sarrerak ez dira aintzat hartuko.
    - Eskaria egiten danerako eskatzaileak eginiko gastuen fakturak edo ordainagiriak aurkeztu beharko dauz. Bestalde, gastu batzuk urtean zehar egiten diranlez, eskaria aurkezten danean oraindik gastua egin barik badago, gastu hori egitearen beharriana justifikatzen dauan agiri ofiziala ere aurkeztu beharko da.
    - Laguntza jaso eta jakinarazpenean zehaztuko dan epearen barruan eta zehaztutako moduan, jasotako diru laguntzaren zuriaketa egin beharko da
  
  - **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**
    - A) Etxebizitza alokairuaren beharrianareko:
      1. Laguntzari atzekitzen jakon eskaera formalaren eranskina.
      2. NAN, AIZ (14 urtetik gorakoak) edo etxeko guztien pasaportearen kopia.
      3. Familia Liburuaren kopia NAN gabeko adintxikikoen kasuetan.
      4. Laguntza eskatzen danerarte alokairuaren gastuaren ordainagiriak eta urtea amaitu arte aurrikusten dan alokairuaren gastuaren agiria.
      5. Alokairuaren kontratuaren fotokopia.
      6. Eskatzailearen Errolda egiaztagiria non erroldaren aintzinasuna zehazten dan.
      7. Alkarbizitza ziurtagiria.
  
    - B) Beharrian pertsonaletarako
      1. Laguntzari atzekitzen jakon eskaera formalaren eranskina.
      2. NAN, AIZ (14 urtetik gorakoak) edo etxeko guztien pasaportearen kopia.
      3. Familia Liburuaren kopia NAN gabeko adintxikikoen kasuetan
      4. Eskatzailearen Errolda egiaztagiria non erroldaren aintzinasuna zehazten dan.
      5. Alkarbizitza ziurtagiria.



	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Materiala, matrikulak...ordaintzeko, gastua eginda badago, gastuaren faktura eta gastua oraindik egiteko badago, gastuaren aurreikuspena.</li> <li>2. Egoera hobetzeko prestakuntza edo eta bestelako ekintzatarako lekuz aldatzea beharrezkoa dan kasuetan, garraio publikoaren bono edo eta txartelaren gastuaren ordainagiria.</li> <li>3. Diruz lagunduko dan tratamenduaren medikuaren eskari ofiziala. Horretan tratamenduaren saio kopurua eta saioen kostua azaldu behar da.</li> <li>4. Desgaitasunaren ziurtagiria.</li> <li>5. Mendekotasunaren ziurtagiria.</li> </ol>
<b>AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN</b>	4.000.-€
<b>SEGIMENDU ETA EBALUAKETA EGITEKO BEHARREZKO INDIKATZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskatzaile kopurua</li> <li>• Emandako dirulaguntza kopurua</li> <li>• Ezeztatutako kopurua</li> <li>• Emandako dirulaguntzen zenbatekoa</li> </ul>
<b>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</b>	
<b>Concesión no publicable por LO 1/1982 BAI/EZ</b>	<i>Ley Orgánica 1/1982, de 5 de mayo, de protección civil del derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen.</i>

